

ITALIA JARRAIPENAREN BILLA

Iraupenik izan al dezake erdi-ezkerreko gobernu batek?

Seguru asko lerro aukeragarriak erakusten ditu Italia gobernu berria denboraren bigarren argitaraldia. Lengua gobernu lau partiduek osatuta

zegoan: kristau demokrazikoak, sozialistak, sozialdemokratik eta errepublikanoak. Parlamentuan azkeneko botazio batean sozialistak gobernuaren kontra eman zituzten botoak eta orduan gobernuak dimititu egin zuan. Lengua gobernu orri erdi-ezkerreko gobernu deitzen zitzaion etzalako ez eskubi-zalea ta ezta zeari ezker-zalea. Eta asko izan ditu gobernu onak asiera asieratik, ez Italia'n bakarrik baita ere atzerrian, batez ere katolikua batzuen artean. Izan ere katolikoen artean batzuek zeari eskandalizatu ta zeuden katolikoak marxistekin batean gobernuan zeudelako eta ori Erroma'n bertan! Orregatik gobernu au erori danean zeari poztu dira oiek. Ala ere badirudi nai ta nai ez Italia'ko gobernuak erdi-ezkerrekoa izan bear duana ta lengua gobernu osatzen zuten lau partiduak prest daude berri gobernu berdiña osatzeko.

na. Italia'ko gotzaiak zer ikusi aundia dute partidu onekin.

P. C. I. Italia'ko Komunita Partidua: Elezioetan kristau demokraziaren azetik bigarren lekuan botuen numeroz komunista daude. Okzidenteko komunista partidurik aundiena ta indartsuena da Italia'ko. Partiduaren buru da Togliati mundu guztiko komunisten artean izen aundikoa da. Auek ere erdi ezkerreko gobernuan parte artu nai dute baiñan orrelakorik kristau demokrazikoak ez dute entzun ere egin nai. Elezioetan botuak irabazi dituzte, milloi bat gutxi gorra bera. Lenago sozialistekin oso bat eginda zeuden baiñan sozialistak gobernuan sartu ziran ezkerozatik batasun ori puskatzen asi da. Ori zan kristau demokraziako elburu bat, komunisten eta sozialisten batasuna auste.

biltzen baiñan ala ere kristau demokraziarekin asko jokatu izan dualako garrantzi aundia du Italia'ko politikaren goraberetan.

M. S. I. Italia'ko Sozial Mugimentera: faszistak, misioen izenarekin ere ezagunak dira. Oraindik oso osoan faszista jarraitzen dute. Batdituzte berrogei ta hamar diputadu. Eskubi-zale amorratuak dira. Bere barruan bi joera arkitu dituzkegu. Alde batetik estadu faszista demokraziaren jokuari jarraituz jorru nai dutenaz eta besteak bertiz indarrarekin bakarrik sortu direkela faszista estadu pentsatzen dutenak.

Errege-zaleak: auek gero ta gero gutxiago dira ta gutxi izan arren euren artean zatituta daude. Gaur egunean italiar geienak errepublikarekin konforme daude. Zer esanik ez dago, auek eskubi-zale amorratuak dirala.

Errepublikanoak: auek emertzigarren gizaldiko partidu batekoak dira. Gaur egunean sei diputadu bakarrik daukate baiñan erdi-



Saragat. Au da sozial-demokraten gizonik aundiena. Atzerri gaitako ministroa.

PARTIDUAK

Kristau demokrazia: partidurik indartsuena. Guda bukatu zan ezkerrozik agintzen dagona. Alcide De Gasperi izan zan asieran bere gizonik aundiena. Botuak gutxi egin zitazkie asieratik eta orregatik orain ezin dezateke bakarrik gobernatu, beste partiduen laguntza bear dute Parlamentuan botuen erdia biñi goi goi bereganatzeko. Bere barruan joera asko arkitzen dira. Eskubi aldetik asita, ezker alderano era gutxiarri joerak arkitu dituzkegu. Eskubi aldekoan entzuenetako Scelba senatore jauna da ta ezker aldean bertiz Fanfani gobernu buru izan-

P. L. I. Italia'ko Partidu Liberala: eskubi aldekoak eta egia ezateko kapitalistak. Beste gobernetan kristau demokraziarekin parte artu izan du, baiñan orain oposizioan dago. Azkeneko elezioetan botu



Kristau demokraten artean aspalditik lan gelena egin duana Fanfani jauna izan da. Emen gobernu buru zalarik, 1962'gn. Ingalaterra'ko Heath ministro jaunarekin. Fanfani eskubitakoa da.

batzuek irabazi zituan baiñan ez dauka aibeste indarririk Europa'ko beste Liberal partiduen antean.

ezkerreko gobernu osatzen dute eta bertan ministro bat daukate.

REFORMAK ETA EKONOMIA

Asko dira sozialistak eskatzen dituztenak. Batez ere estrukturalak zuzendu bearra. Kristau demokrazikoak ez daude orren kontra. Baiñan... Italia'ko ekonomia oso garai txarrak ditu orain, batez ere inflazioaren irudi bildurgarria azaltzen da alde guztietatik. Kristau demokrazikoak esaten die sozialistei, bai, estrukturalak zuzenduko ditugu baiñan lengua ekonomia zuzendu bear degu. Ekonomia zuzendu gabe estrukturalak zuzentzen asten baldin bagera bagoaz danok gotik bera. Eta au da erdi-ezkerreko gobernu baten prolemarik aundiena.

NAZIO-ARTEKO POLITIKA TA SOZIALISTAK

Sozialistak gobernuta iritzi baiño lehen neutralidadea defenditzen zuten bero bero ta gainera etzitzen ikusi nai Italia'n N. A. T. O.'ren eta Iparameriketaren militar basteak. Kristau demokrazikoek ordea N. A. T. O. bero beroan defenditzen dute. Gai onetaz sozialistak burua makurtu dezateke baiñan ez oso gogo onez.

NAZIO-ARTEKO UNEA

KONGO BERRIRO BAKARRIK

Bi onen asieran bete dira lau urtebete belgak Kongo'ri askatasuna eman zionetik. U Thant, U.N.O.'ko sekretario berak aitortzen duenez erri au etzegoan oraindik prest askatasuna bere gain artzeko. Ez gera orain astertzen asiko ea norena zan errua.

Gaur egunean, politika ltegiari Kongo itza, nahaspilla, nahasketa, zalaparta itzen sinonimoa da, esan-nai berdinekoa. Askatasun ondorenean, an gertatu ziranak konpotze arren U.N.O.'k bere gain artu zuan jalo berria zan estadu, Kassayubu ta Lummumba estadu-gizonen eskabideari erantzunaz.

U.N.O.'k Kongo bere gain artu zuean eta bere gudariak ara bidali zitanean, makina bat asarre ta eztabaida sortu zan bere barruan. Orain U.N.O.'k bere gudariak zeari atera ditu Kongo'tik, orregatik Kongo berriro bakarrik arkitzen da here goraberak xuzentzeko ta prolema gogorrek. Bidezkoa al zan U.N.O.'ren jokabidea? Orta zerbait esan nai nuke.

Gaur egunean asko dira estaduak U.N.O.'ren kontra esaten dutenak, antolaketa, organizazio onek ez duala eskubiderik nazio edo estadu bakoitzaren barrango galetan zer ikusirik. Nik balets aste det ordea. Gizonen arteko bentako maltasuna maite dutenak beti amets egin izan dute, mundu guztirako haloko duan gobernu batean. Erri bakoitzak, nazio bakoitzak nai eta bere nortasuna gorde, mundu guztikoak erri bat nazio bat osatzen dago. Oraingo U.N.O.'k —Estadu Batuen Antolaketa— gobernu orren xeregiña betetzen du nola alabait eta oso neurri motzean. Baiñan nai eta emen emandako arrazoiarekin konforme ez ezan ez dago ukatzerik esate baterako U.N.O.'k baduala eskubidea Ego aldetik Afrika' ren kontra sartzeko, onen egiten apartheid politikaren kontra sarteko.

Bai ori oso polita da, ta berez U.N.O.'k Kongo'n erabilili duan politika berez ez dago eztabaidatzerik. Baiñan zoritzarrez, gaur prolema dauden leku guztietan gertatzen denez ez dago ezer konpotzerik munduko bi aundien balmenik gabe, Errusia ta Ipar-ameriketaren balmenik gabe. Ta ori da benetan zoritzarrezkoa nere iritzian. Bi oiek, mundu guztia bi zatitan erditbitu bezela daukate ta bakoitzak bere zatian jaun da jabe izan nai du. Eta munduko edozein iskitetan zalapariaren bat sortzen baldin bada bi aund oiek ez dute behiere pentsatzen prolema ori bertako erriaren onari begiratuta konpondu nai bazik eta Errusi ta Ipar-ameriketaren onari begiratuta. Ori Imperialismoa ez baldin bada esan dezateke ea zer dan.

ARREGI'TAR RIKARDO'K

MUNDUAN

ESATEN DANA

LE MONDE

Algeritarrak: naikoa da!

Bere kontra dauzkanak indarraren bitartez Ben Bella'k menperatu nai baldin baditu erriaren zentzu ona arkituko esaten diolarik «Beraket» (naikoa da!). Onela egiten zuten deadar 1962'gn. dagonillean. Onela dio gaur Alger'eko erriak Algeria'rentzat Kongo'rena ez bezelako etorkizuna nai dutelarik.

NEW YORK HERALD TRIBUNE

Golwater dala ta

Golwater senatoreak zion lengua egunean nazio guztia bitan zatituta dago ta bi partiduen artean diferentzi berezi berezia dago ta berak diferentzi ori seinlatu nai duala. Oraingo ondo dijoa. Nai eta errepublikano gienak berarekin konforme ez egin mirari batek bakarrik kendu lezaioke partiduaren makinaria eskuartetik.

CORRIERE DELLA SERA

Erdi-ezkerreko gobernu

Kristau demokraziaren zuzendaritzak bere kuze ta neketsu izan dan asteleneko billaren erdi-ezkerreko gobernuaren balioa onartu du ta berriro sozialistak, sozialdemokratik ta errepublikazalehekin gobernu osatu bear dala erabaki du, au da, Moro jaunaren aginpean dimititu duan gobernu bezelakoa. Politikari dagokionez lau partiduen arteko gobernuak sus-trai auek, lau sustrai auek eduki bear ditu; instituzioen eta libertadaren defentsa, maioriaren muga mugiezñizkeak eta garbi garbiak jar-tzea, komunismoaren kontra-koa izatea ta oso-osoa okzidentean dauzkagun elkartasun guztientzako errespetoa.

Ale
bakarra

2,50

Pezta